



2009KO UZTAILAREN 15EKO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bederatziko uztailaren hamabostean, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Xanet Barreras Jauregi eta Iñaki Saldaña Herrero.

Felix Urkola Iriarte eta Amagoia Naldaiz Mingo zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2009ko ekainaren 10ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2009ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 8 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, EHUN ETA HOGEITA HIRU MILA HIRUEHUN ETA HOGEITA LAU EURO ETA BERROGEITA HAMAZAZPI ZENTIMO (123.324,57€)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Larrialdietarako dirulaguntzareren itzulketa espedienteak hastea.-

- 09-01-0012 zbk.dun esped.: JESUS MITOGO ALO EYANG J.k, 1882/07 pasaporte zenbakia duenak, Areso kalea 12 - 3. ezkerrean bizi denak, gizarte larrialdietarako laguntza eskatu zuen logela baten alokairuko gastuak ordaintzeko eta Tokiko Gobernu batzarrak, 2009ko apirilaren 8an egindako bilkuran hilean ehun eta hirurogeita bost euroko (165 €) dirulaguntza ematea erabaki zuen.

Interesatuari maiatza eta ekainari dagozkion zenbatekoak ordaindu zaizkio, hau da hirurehun eta hogeita hamar euro (330 €).

Udal zerbitzu teknikoek egindako txostenean laguntza hau lortzeko aurkeztutako dokumentazioaren artean gezurrezko alokairu kontratua aurkeztu duela adierazten da eta honen aurrean, Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informatzaileak emandako dirulaguntzaren itzulketa onartzea proposatu du.

...///...

Honen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, gaia aztertu ondoren, eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

1.- Akordio honen aurrekinetan adierazten diren zio eta kopuruengatik itzulketa prozedura has dadin erabakitzea.

2.- Akordio hau interesatuari jakinaraztea hamabost eguneko epean alegazioak aurkeztu edo egoki deritzon dokumentuak aurkez ditzan.

Larrialdietarako dirulaguntza baten inguruko zehapen espedientea hastea.-

- 09-01-0012 zbk.dun esped.: JESUS MITOGO ALO EYANG J.k, 1882/07 pasaporte zenbakia duenak, Areso kalea 12 - 3. ezkerrean bizi denak, gizarte larrialdietarako laguntza eskatu zuen logela baten alokairuko gastuak ordaintzeko eta Tokiko Gobernu batzarrak, 2009ko apirilaren 8an egindako bilkuran hilean ehun eta hirurogeita bost euroko (165 €) dirulaguntza ematea erabaki zuen.

Interesatuari maiatza eta ekainari dagozkion zenbatekoak ordaindu zaizkio, hau da hirurehun eta hogeita hamar euro (330 €).

Udal zerbitzu teknikoek egindako txostenean laguntza hau lortzeko aurkeztutako dokumentazioaren artean gezurrezko alokairu kontratua aurkeztu duela adierazten da.

Egindako arau-haustea diru-laguntzak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 58. artikuluan a) apartaduan aurrikusita dago, oso larri gisa tipifikatuta, eta izan lezaken zigorra, ari garen kasurako, aipatu legearen 59-3 artikulua araberak, dirulaguntzak, laguntza publikoak eta Herri Administrazioen abalak jasotzeko aukera 5 urteko eperaino galtzea.

Honen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, gaia aztertu ondoren, eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

Lehena.- Akordio honen aurrekinetan adierazten diren zioengatik JESUS MITOGO ALO EYANG J.ri zehapen espedientea hastea.

Bigarrena.- Udal honetako funtzionaria den Iñaki Eskisabel Zurututza **Instrukture** izendatzea, baina ustezko erantzuleak prozeduraren izapidaketako edozein unetan ere ezespena eragin dezakeela adieraziz, idatziz hala planteatuta eta ondorengo arrazoietakoren batean oinarritzen dela esanez:

a) Tratatzen den gaiarekiko edota haren ebazpenak eragina izan lezakeen beste batekiko interes pertsonala izatea; sozietate edo interesdun erakundeko administratzaile izatea, edota interesaturen batekin ebazteke gai gatazkatsuren bat edukitzea.

b) Odol-ahaidetasuna laugarren maila barne duela edota ezkontzahaidetasuna bigarren maila barne interesatuetako edozeinekin, sozietate edo erakunde interesatuetako administratzaileekin edota prozeduran eskuhatzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin eta baita bulego profesionalean partaide direnekin edota berauekin aholkularitzarako, ordezkartzarako nahiz mandaturako elkartuta daudenekin ere.

...///...



...///...

c) Aurreko atalean aipatutako pertsonetakoren batekin adiskidetasun mina edota ha-serre nabaria izatea.

d) Dena delako prozeduran posito edo lekuko bezala eskuhartu izana.

e) Gaian zuzeneko interesa duen pertsona natural edo juridikoarekin zerbitzu-harre-mana izatea edota azkeneko bi urtetan edozein motatako eta edozein inguruabar edo leku-tan zerbitzu profesionalak prestatu izana.

Hirugarrena.- Espedientea ebazteko organo eskuduna Tokiko Gobernu ba-tzarra dela adieraztea, dirulaguntzak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Lege oroko-rraren 66.3. artikulua arabera.

Laugarren.- Ustezko erantzuleari jakinaraztea, alegia, bere erantzukizuna borondate onez aitortzen badu, prozedura ebatzi ahal izango dela bidezkoa den zigorra jarrita.

Bosgarren.- Ustezko erantzuleari adieraztea, alegia, prozeduraren hasieraren berri ematen dion jakinerazpena jaso ondorengo egunetik zenbatutako **hamabost eguneko** epe-an, komenigarri irizten dituen alegazio, dokumentu edo informazioak ekarri ahal izango ditu-ela eta kasua bada frogantza proposatu ere bai, erabili nahi dituen bitartekoak aipatuz.

Era berean, prozeduraren ebazpena egin aurretik eta ebazpen-proposamenaren on-doren, entzutealdiaren izapiderako aukera emango da epe berarekin.

Seigarren.- Akordio honen berri **instruktoareari** eta "JESUS MITOGO ALO EYANG jaunari" ematea eta **errudunari** adieraztea jakinerazpena jaso ondoren zenbatutako hama-bost eguneko epean prozedurari hasieraren edukinari buruzko alegaziorik egiten ez badu, hasiera hori **ebazpen-proposamentzat hartua izan daitekeela** eta bidezkoa den entzu-tealdiko izapidea egin ondoren, espediente hori berehalaxe bideratuko zaiola organo eskudu-nari, bertan azaltzen diren dokumentu, alegazio eta informazio guztiekin batera.

Ettxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 09-011-003 zbk.dun esped.: zerbitzua ematea, astelehenetik larunbatera, egunean hiru orduz. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %47,6koa izango da.

- 09-011-003 zbk.dun esped.: zerbitzua ematea, astean bi egunetan, egunean 2 orduz. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %34,9koa izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 615 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimendurako dirulaguntza gutxitzea 46,25 €ra, apiriletik irailera, bere dirusarreraren aldaketa dela eta. Ematen zaiona Eusko Jaurlaritzak ezartzen duen gehiengoaren %50a da.

- 09-01-013 zbk.dun esped.: logelaren alokairurako dirulaguntza bertan behera uztea, do-kumentazioa faltsutzeagatik.

- 09-01-016 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimenduko gastuetarako hilean 92,50 € ematea ekainetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

...///...

...///...

- 09-01-016 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimendu gastuetarako dirulaguntza eskaera bertan behera uztea, eskatzaileak egokia ez den informazioa emateagatik.
- 755 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren alokairu eta mantenimendurako jasotzen duen dirulaguntza bertan behera uztea, eskatu zaion dokumentazioa ez duelako aurkeztu.
- 09-01-011 zbk.dun esped.: etxeko mantenimendu gastuetarako dirulaguntza bertan behera uztea.

Drogomenpekotasuna, garraiorako laguntza.-

- JOSE ANTONIO GONZALEZ SEPULVEDA, hilean 24,95 €ko dirulaguntza ematea.
- ENEKO AGIRRE URANGA, hilean 53,95 €ko dirulaguntza ematea.

Minusbaliatuentzako aparkatzeko txartela.-

- 09-02-012 zbk.dun esped.: minusbaliatuentzako aparkalekuetan autoa aparkatu ahal izateko txartela ematea, mugikortasun baremoko gutxieneko puntuaziora iristen delako.
- 09-02-013 zbk.dun esped.: minusbaliatuentzako aparkalekuetan autoa aparkatu ahal izateko txartela ematea, mugikortasun baremoko gutxieneko puntuaziora iristen delako.

IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kultura eta Euskara batzordearen proposamenez, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

- Kantata abesbatzari, 2009ko jardueren gastuei aurre egiteko eta 2009ko dirulaguntzaren kontura hiru mila euro (3.000 €) aurreratzea.
- Goierriko HITZAri, GOIEKIren bidez HITZArekin izenpetutako hitzarmenean oinarrituz, hau da, urtean biztanleko 2€ko dirulaguntza ematearena, orain erdia ordaintzea onartzea, bost mila hirurehun eta berrogeita hamalau euro (5.354 €).
- Goierriko Euskal Eskolari, Gerriko Ikerlan Bekako gastuei aurre egiteko 2009 urteko dirulaguntzaren erdia, hau da, bi mila eta bostehun euro (2.500 €) orain ordaintzea onartzea.
- Argi Berri Elkarteari, Lazkaon lanean ari den Goierriko Bertso Eskola taldearen 2008/2009 ikasturteko gastuei aurre egiteko, bederatziehun eta hogeita euro (920 €) ematea.

V.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kirola eta Gazteria batzordearen proposamenez, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

- Lazkao Antzar Pilota Kirol Elkarteari, III. Goierri Beheko 7 udalen pelota txapelketaren antolakuntzarengatik, berrehun eta berrogeita hamar euro (250 €) ematea.

...///...



...///...

- Juan Joxe Etxeberria Zalduari, uztailleko asteburuetan Lazkaon egiten den "Joxe Mari Ke-rejetaren oroimenez"ko V. Pala Txapelketaren antolakuntzagaitik berrehun eta berrogeita hamar euro (250 €) ematea.

VI.- UDALBIDE ELKARTEARI DIRULAGUNTZA.-

UDALBIDE Elkarlan Elkarteari lau mila eta bostehun (4.500 €) euroko dirulaguntza emateko eskariaren aurrean.

AURRETIKOAK

- I.- UDALBIDE Elkarlan Elkartearen xede nagusiak dira euskara babestu, garatu eta sustatzeko elkartasun fondoa eratzea eta euskal lurralde guztietako udal eta herritarren arteko harremana bultzatzea; hartara, helburua du ekimenak sustatzea hizkuntza, kultura, kirola, ingurugiro, lurralde antolaketa, ekonomia garapena eta gizarte ongizate esparruetan, baita udalerriek eskumenak esleituak dituzten gainerako gaietan ere.
- II.- Egiatzatu da kreditu egokia eta behar adina dagoela, dirulaguntza emateak berarekin dakartzan betebeharrak ekonomikoei aurre egiteko.
- III.- Udal honetako aurrekontuen betearazpen oinarrietan UDALBIDE Elkarlan Elkartearen alde dirulaguntza emateko aurreikuspena ezarri da, izen eta guzti ezarri ere, eta egiatzatu da elkartearen xedeak bat datozela udal eskumenekin, eta horrek frogatzen du bete egiten dela interes publiko eta sozialarekin bat etortzeko baldintza, huraxe baitute xede bai udalerri honek bai aipatu elkartearak.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ikusirik indarra duten arauen artean aplikatu beharrekoak, bereziki UDALBIDE Elkarlan Elkartearen Estatutuak eta haren sarrera Bazkunen Erroldan, eta orobat ikusirik Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra eta Toki Erakundearen Zerbitzu Arautegia.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, eta bertaratutako bere partaide guztien adostasunarekin, zera

ERABAKITZEN DU

Lehenena.- UDALBIDE Elkarlan Elkarteari zenbateko honetako dirulaguntza ematea: lau mila eta bostehun (4.500 €) euro, 2009ko ekitaldirako jarduketara programan aurreikusita dauden jarduerak finantzatzeko, indarra duen antolamendu juridikoarekin eta udal eskumenarekin bat baitatuz jarduera horiek.

Bigarrenena.- Ebazpen hau jakinaraztea UDALBIDE Elkarlan Elkarteari.

Hirugarrenena.- UDALBIDE Elkarlan Elkarteari onetsitako zenbatekoa ordaintzea, dirulaguntzaren baldintzak arautzeko hitzarmen bat aldeztu aurretik izenpetuta.

VII.- GOIEKIRI DIRULAGUNTZA.-

Garapen iraunkorra sustatzeko ekintzak egiten zituzten udalei, mankomunitateei eta tokiko beste erakunde batzuei dirulaguntzak ematea arautzen zuen 2007ko apirilaren

...///...

...///...

27ko Agindua ikusirik, Lazkaoko Udalaren bitartez "*airearen kalitatea hobetzeko helburuz, jatorri industrialak duten emisioen inbentarioa egin, eta jarduera era irekitze lizentziak legalizatzeko planaren bitartez eskualdeko industria emisio fokuak identifikatu eta legalizatzeko*" proiektua 2007 eta 2008 urteetan zehar GOIEKIren bitartez eskualde mailan gauzatu ahal zedin dirulaguntza eskatu zen. Dirulaguntza eskarian adieraz zen bezala, proiektu hau aurrera eramateko ardura zuen entitatea GOIERRIKO EKIMENA, S.A. (GOIEKI) zen.

Proiektu hau 2007 eta 2008 urteetan zehar garatzeko aurkeztu zen aurrekontua 61.440 €koa (BEZ barne) izan zen.

2008ko urtarrilaren 22ko ebazpenaren bidez proiektu hau diruz laguntzea onartu zen.

2008ko martxoan dirulaguntzaren %40ko aurrerapena egin zuen Eusko Jaurlaritzak, 14.830 € hain zuzen, eta diru hau Lazkaoko Udalak GOIEKIri eman zion.

Orain, lanak amaituta eta Eusko Jaurlaritzak ordainduta Lazkaoko Udalak dirulaguntzaren gainontzeko %60 jaso duelarik, GOIEKIki diru hau, hau da, 22.245 € berari ematea eskatzen du, proiektuaren gastuei berak aurre egin bai die.

Guzti honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, GOIEKIri Eusko Jaurlaritzatik jasotako hogeita bi mila berrehun eta berrogeita bost euro (22.245 €) ematea erabakitzen du.

VIII.- SAN BENITO IKASTOLARI DIRULAGUNTZA.-

Udal honek eta San Benito Ikastolak hitzarmena izenpetuta daukate eta hitzarmen honetan San Benito Ikastolak eskolaz kanpo garatutako jarduerengatik udalak emango dion dirulaguntza arautzen da.

Hau honela, hitzarmen horretan xedatutakoaren arabera, 2009 urteari dagokion dirulaguntzaren %50aren ordainketa onartzea proposatzen da, hamabi mila zazpiehun eta hirurogeita bat euro eta berrogeita hamar zentimo (12.761,50 €) hain zuzen ere.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, proposamena onartzea erabakitzen du.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko 8ak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

